

Solozabal'dar Paulin

# ***GIZONETAN***



SOLOZABAL'DAR PAULIN

«Egieder»

**GIZONETAN**

**Nihil obstat:**  
**Dr. Antonio Zaldúa**  
Censor ecco.

**Imprimatur:**  
Biibao, 23 de mayo de 1969  
Dr. León M.' Martínez, Vic. Gen.

Depósito legal: BI 1.144 - 1969

## SARRERAKO ZERBAIT

Buru-biotz gara, ta barrenetik atara oi doguz —erleak ezta lez— pentsamentuak, itzaren bitartez gero adierazten emonik. Batzuk gozo ta samur, zakarrago beste batzuk. Olorkari-saillean be tarte aundia dago batetik bestera; oierkaria, alan be, bere pentsamentuak eder ta antzetsu adierazten alegindu oi da.

Izaki goi-argitu onein lanak, mamiña ta azala, gutiz nabarmen ditugu. Ta oni begira eritxi ez-bardiñak azaidu eta erakutsi oi dira. Mamiñak berez ete dau ederra, aia azaictik artzen? Barrua beiñago dogu, azala baiño. Errromantikuentzat batez be, ezpei azalak irauui ez aldatu barruko biotz-zauskada ta sentimentuak: barreneko esan gurea da aurrenengo, ta gaiñeko jantzia gero.

Lanaren gunak, beti, be, olerki-zeiaian baitik bat, soiñeko dotorea eskatzen dau. Eguneroko bizitz-zatitiatik jasotako erti-gaiak —arte-gaiak— izan daitezkez bapc balio bakoak —kondaira-jazokun oso txikiak, gizarteko gorabera oso utsaren urrengokoak—; baiña ezin geinke iñundik iñora be ukatu barrukoaren eta azalekoaren artean artu-emon aundia dagoanik.

Gaur esanari garrantzi geiago ezarten dautsagu, zelan esaten danari baiño. Ederra, baiña, beti antzirudi ta metafora bitartez adierazten dogu, ta antzirudiok jantzi dotore eske daukaguz. Pintura Lauki bat ezta edozein kolorez osotzen; ezta musika-zati bat be edozelako doiñuz, edo taitlu-irudi bat, eskultura irudi bat edozein arri-mukuluz. Beraz, itz ederra azaltzeko be itz egoki ta dotoreak erabilli bear dira, olerki-lanean diardugunean batez be. Izkuntza poetikua deritxona.

Izaki miressgarri onein lanari begira ez da errez nobere ustebide ta eritxia emotea. Ertz asko ikutu ta aztertu bear dira, aurretik. Eta ortarako ezta gai edonor. Sarri, bai, papagai antzera itz ba-dagigu, baiña aburu zeatza, jatorra ta brintzala emotea ezta ain samurra.

Askoan, orraitño, mutitlak gara geuro eritxia azaltzen. Onela jokatu oi dogu: egitle bat naiz arto bat atsegin ezpa-yat, aren lana ezta ona, puntcrengoa izanda be. Auxe da askotan gure jokabidea. Baiña au ezta objetibua izatea, guztiz norberel:oi izatea baiño. Ta olan ez dagigu egiazko kritikarik, otz eta sentikor-eza baizen. Poesia zer danik be ez dakinaren eritxia. Gaur, zoritxarrez, taiu ortako eritxi-emote artoteak sarri jasan bear ditugu.

Gauzak egozan iekutik atera ondorean, ez dakigu barrio nun egokitu; edo-ta etxea lurrera bota ondoren ez dakigu barria zeian jaso. Gai askori buruz mintzatu oi gara, jakintsu zurrean. Gizakoiak gara, gizatasun zaleak —humanistak—; kritika latz eta gordiñaren bidez —sarri esteringoa dirudi— norbere aldiko jakite, oitura ta gizarte-igierak obatz ta osotu nairik, oierkiaren edo eie-ederraren izana ta oginkizuna adierazo ta mugatu bearrean, orren zelaitik alduendua, ingurumarka ibilli oi dira, ez-jakiñezko autslaiñoa arrotzen.

Nai doguna ixillazten dogu, ta nai doguna argimutil gaiñeratu, ezeren ardura bage. Gauzeari ez dautsagu bere balioa ezarten. Euskal poeten artean be ba-dogu olako zerbait. Bai, batzuk, egia esan, ba-dabez euren arranoak, Promotou'ri lez erraiak aspertu barik jaten dautsezanak., Zoriak alan naita, curen Eumenides edo iratxo gaizkiñak dabez atzetik, mamu asperkor antzera gau ta egun orpoak zapaltzen dautsezanak.

Baiña ez ikaratu. Aldia da nunbait gauzai benetako balioa dakartscna. Gaur, ari edo oni eztauan balioa ezarrita be, gerora, gauzak erdi-billosik geratzean, curen berezko barru-kemen guztia aragitu egin oi yake. Gauzak orain geure begi aurrean aurkitzean dauken laztasuna, gero galdu egin daroe, gomutazko miesa-arietan argi, garbi ta ederrago egiñik. Izan be, gaurko olerki-lanak, geuk lenagokenak lez, askoz garbiago ta era apartekoz ikusiko dabez gure ondorengoak.

Aurrean daukazun olerki-liburu au poeta baten lana dozu. Lenagotik be ba-ditu olako lanak: **Uskeriak** eta **Urre-bitsa**. Len lez orain, arranguratsu, kezkatu, usakatx eta zain-bizi yatorku. Gaurko gizarte-arazoetan sarturik, gizon billa ibillia dozu. Gazte bat erromeriz erromeri dabillcnean, onela esaten da: «neskatan dabil». Egieder gizonetan dabilkigu. Diojenes'en antzera nunbait, kruselua eskuan daualarik. Aurkitu al dau?

Gizona jausia ta porrot egiña ikusten dau, duintasun barik; ezta goi-zale, lur-zale baiño; biotza maitasun-abi barik, gorroto-abi dau. Ta olerkariak ezin dau ori ikusi. Gizartean, lantegi, industri, salerosketetan, zuzentasunik eza agiri da. Olerkariak ezin dau olakorik ikusi. Erria nortasun bage, oinperatu ta laskitua dakus, eta olerkariak ezin ori eroan. Bere kantua, bada, geienik zurbilla, tristea da.

Aurreko bertso-liburu bietako lanak —Orixe'k iñoanez— gogaketa aldirako gai-*cskintzaille* ba'dira, esku arteko au —sakonago, edertoago egiña— geure bizi-jokabiderako aillagiñekoa *dogu*.

Larrea, 1969-IV-9'an

**Aita Onaindia**









## BEREZ

Berez, argia da  
ta ezin dot ikusi...

Sñistodun gizonak,  
zergaitik, zergaitik,  
ez dira geiago arduratzen  
gizonaren bizitza osoa  
jagoton?

Arima bizitza jagokeran,  
zergaitik itzi  
aren lagun bakarra,  
bertan bera,  
aretzaz arduratzeke?  
Au ez da Jaungoiko gogoia.

Arima ain aundia  
dalarik,  
aren lagun danak,  
ardura bakanak  
merezi ditu.

Ez geiago,  
ez ai da ikusiko  
laguna erdibiturik  
bidebagekeriz.

## NOZ

Noz ikusiko ete dogu  
geure sor-burua...  
Noz jakingo ete dogu  
gizon guztiok  
gure elburua zein dan...  
Noz konturatuko ete gara  
guztiok anai garala...  
Noz kenduko ete da, noz,  
gizaditik gorrotoa...

Nundik agertuko ete da  
argia...  
Gizadiaren eder guztia  
ikusteko  
aratz  
garbia...

Bai, orduan, bai,  
lagun guztiak onduko gara.  
Ugerrezko dirurik ez da izango.  
Maitasuna argi eriotan  
batetik besteraño  
elduko da...

Guztiok lagun,  
guztiok ondo,  
zelai Ianduetan  
gizonak baketan.

## GIZONAREN

Argia ta maitasuna dira  
gizonaren lore ederrenak.  
Adimen bidez dakus  
izadia ta gizadia.

Gizadia anaitza eder bat  
izan bear leuke  
eta izadia  
guztien alorra.  
Baiña zer dok, adimena,  
on-bidea galduta,  
nora oake itsurik  
egi onenak lauskituta?  
Ez al dok ikusten gizona  
ire erruz minduta...?  
Bidez bide negarrez?

Adimena, zerk lausotu dauk  
ire begi argia?

Negargarri egiz,  
adimena itsutzea  
maltzurkerien txarkeriz  
ta gizona ii  
zuzenbagekeriaren  
indarrez.

## BIOTZA

Biotza, onaren maitaletzat  
euki aut beti,  
ire maite giroko  
arazo orretan.

Baiña zer dok  
emen dakusdana...  
Gizonak gizona zapaltzen  
erruki bage,  
sarri,  
gorrotoz.

Biotza, noren aginduz ori,  
nagusitza irea izanik?  
Noztik ona biurtu az  
ain pizti gogor?

Leoiak basoan  
umeak maitatzen  
curen biziagaz  
kumeak janaritzen.

Ta gizona,  
ire biotza  
zertan jabilk,  
maitasun arazoa itzita  
bizitzak apurtzen?

## GAZTEDEI

Gaztedi barri bat agertu yaku,  
asmo barriz,  
gogapen zuzenez,  
gizadi zarreko gizoneri deika.

Egokia!  
Lengo egiturak,  
itxuraz itzaltsuak,  
baiña sarri,  
azpikeriz ornitua.

Ardi narruz jantzita  
otsoen goseagaz,  
agiñak zorrotz,  
erpeak luze,  
ez ete dira loditu  
errubageko bildotsen  
aragia janda?

Zelai orlegian  
biidots barriak  
dei egiten dabe,  
eguzki argitan,  
egi egarriz,  
gizadiaren bizia  
edertu dadin...

## OTSA

Biotza  
maitasunaren otsa.  
Ederrenik ederrena  
biotz ontasuna.  
Zuk poztu dozuz samiñak.  
Zuk il dozu garraztasuna.  
Maitasunez zabaldu ziran lorak  
biotzaren erdian.

Orain, egia ta argia  
maitasunez nastau dira  
gizon askoren  
uste onean.  
Mendi ta soloak  
alaiago dira  
maitasun goizean.

Sendi ta lantegieri  
bake gozoa darie,  
egia ta zuzentasuna  
loratu diranean  
gizonaren barrunbean.

Biotza,  
zure ontasuna ixuri  
gizon bakotxari  
biotz barrenera  
ugari.

## AZKATA,SUNA

Azkatasuna.  
Itz ez titsua.  
Len, estalduta egoan  
onen edertasuna.

Aundikeriagaz ete?  
Indarrak agindu  
ta gaiñerakoak  
ixilik,  
kateipean egoteko  
sortuak  
al dira?

Utikan!  
Olakorik ez!!  
Gizadi osoa dabil,  
gaur,  
azkatasuna goratzen.

Bidezkoa!  
Jaungoiko irudi  
biurtzen gaitu-ta.

Azkatasunez gizonak  
egia ezagutuko dau,  
azkatasunez  
gizonak gizona  
maitatuko,  
lotsarizko kateiak  
piztientzat  
itzirik.



## AZKE

Azko naz,  
neure izatez.  
Azke naz  
jakituriz.  
borondatez  
eta  
noure Jaungoiko antzeraz.

Neure azkatasunean  
jaun ta jabe  
itzi ninduan  
berez dan indarrak.

Neure gogoz  
egia aukeratu bear dot,  
osasun biderako.

Egiaren bidez  
gizadia otseinduko dau  
gizon azkeak.

Gizonaren duintasuna  
eskean dator.  
Bere jakituriz  
eta  
azkatasunez  
aukeratuko ditu  
giza-bizitza  
zuzenduteko  
biderik  
zurrenak.

## ZORAGARRIA!

Zoragarria!  
Gizonaren duintasunak,  
berez, eskatzen dau  
goratasunik onena.  
Gizonak bere erclxíz  
barruko zuzentasun argiz,  
iñoren katei bage  
lotsagarritzko jopukeriak  
astinduta,  
zuzendu bear dauz  
bere egite egizkoak.

Izatearen griñak  
ikusi  
eta  
menperatu  
norbera  
zuzen  
izanaz.  
Ori da azkatasun jaioa.

Indarraren lakioak ausi,  
maltzurkerien sareak erre,  
jaunkriaren lotsabagekeriak  
argiagaz  
berrindu  
eta  
notiña gizonago izango da  
berari dagokion  
nortasunagaz.

## **BAKARRAK**

Gizon bakarrak diruagaz  
garaitzaille ziran.  
Antziña, len, atzo,  
aundikeria zan nagusi.  
Gaur ba-doa galtzen  
norkeriaren arrokeria.  
Ekandu txarrak ba-doaz ilten  
gaztelu zarretako arresipean.

Oraindiño, osoan,  
ez dira lotsatu.  
Laster ikusiko dabe  
gizon guztion bardintasuna.  
Gogo askoren jarduna  
ezta ilgo,  
biziko da,

Zuk,  
nik  
eta  
guztiok  
bat egin da  
laster  
ludia  
barrizturen...  
Gizadi barri bat  
zorion geiagoz  
agertuko da  
lur gaiñean.

Gure alkartzeak ikaratuko ditu  
otsoak gazteluan  
ta gizarte batuaren garaitza  
ikusiko dabe  
erriak.

## EMENTXE

Ementxe barruan  
ixilik eta otska daroat  
oarlaria.  
Legea da, mentasuna eskatzen.

Egin daragist  
ona danean.  
Geldi diraust  
txarraren aurrean.

Jaungoiko legea neugan dago  
gizona goratzen.  
Gogapea da  
gizonaren barruko una.

Jaungoiko eta gizona  
alkar izketan dabiltz.  
Jaungoikoak esan,  
gizonak entzun  
eta  
gogapeak  
egiari  
bidea  
emon.  
Gogape agurgarria,  
egiak eioten dabil  
argibidetzat  
barnean.

## GOGAPEAK

Gogapeak ausnartu dauz  
egirik bizierak.  
Arrigarria zara,  
siñistu dozu-ta.  
Zuk, orain argia  
zabalduko dozu  
ta  
egitik argituko dau  
gizadi barrutia  
Jaungoiko ta gizonenganako  
maitasun !orean.

Zuk ogiak  
eta  
arek egiak  
esanaz,  
gizartean anaitasuna  
sortuko da  
ota  
maltzurkeria ilgo;  
egi bidean  
bizitzako arazoak  
atkarrekiko uste obean  
joango dira  
maitasunez  
konpontzen  
bizi barrian.

# ERIoTZA!

Eriotza!  
Leoia ez da ain gogor...  
Otsoa ez da ain itzai...  
Artza ez da ain bildurgarri...

Eriotza!  
Zuk geriza ixil bat dozu.  
Gizadi osoa,  
ezkutuzko indarrez  
iruntsi gura zenduke.  
Ezpatarik *ez* daukazu  
eta  
etxerik etxe zoaz  
ezpatadun guztiak menperatzen.

Izadi guztiak ezetz dirautzu,  
baiña atperrik.  
Betiko bizitzaren garra  
zure aurka jaiki da.  
Jakituriaren aurrerapideak  
atak egin ditue,  
baiña ezin garaitu eriotza.

Zure  
indar  
ezkutuak  
dardaraz  
birrintzen dau  
ezpata  
barik  
bizitza.

## EZIN EGIN

Jakituriak ezer ezin egin.  
Ta eriotzaren indar bildurgarriak  
aurrera doaz  
gizadia birrinduten.  
Gogor eta ziur...

Egiak, Jaungoiko argiak eraginda  
itxaropen poza damosku.  
Kezkaz eta zapalduta  
lurrean izateko  
ez nintzan ona etorri.  
Lurraren jo-mugak  
igarokeran,  
eriotza  
azpiratua izango.

Jaungoiko bizi  
bizi illczkorra  
beragaz batian  
biziko dogu,  
Jaungoikoak  
betiko zorientasuna  
damoskunean.  
Kistok irabazi euskun  
odoletan,  
kurutzean,  
gizona  
asetzeko  
bizi-egarria.

## NORKERIA

Norkeria.  
Berez, txikitatik  
mindu nindun  
aundikeritik da torren  
gaitz lizun onek.  
Ume nintzala,  
gizona ezin ikusi neban  
diruak pillatzen.

Besteak baiño geiago zalakoan  
itzik egin nai ezta  
erri zeñari.  
Egunez gerizpetan, errekatdetan  
ta gabaz diruak ondatzen  
uiski ta gonekin  
illunaren lotsabagetasunean.

Oi zoritxar samiña!,  
aundiki bizi nai ta  
erritik banatu ziran...  
Banatze larriak  
ondoren latzak  
ekarri ditu  
erriaren  
biotzera.



## LUR

Lur landuak.  
Latziañak,  
Zelaiak.  
Lugiañaren arrobiak...

Guztia lcgortzen ari zan  
uclabarria baiño *len*.  
Izadia ixilik datza  
lur-amaren altzoan.  
Lugiañak be ixilik dagoz,  
baiña kezka,  
abereen janaririk ezagaz.

ALTSUA goian dago  
izadi osoaren aurrean,  
giz\_oneri  
begira,  
Erruki da,  
biotza azkatu vako lugiañarentzat.

Ixilik,  
nnaita ,unez,  
ogia (lamolSo  
gizadiari  
euriaren egoetan.  
Ur gozoa,  
opaco,  
ta turra,  
pozez,,  
agiri da.  
Jaubek  
milloiak eta milloiak  
bialdu ditu,  
gaur,  
gizonen gosea kentzeko  
odeictatik  
lurrera.

## JABE

Gizonak Jabe otska dauka.  
Maitasunez cien bage.  
Sorleak bcreaana dei daaitse  
giza-semceri  
indarrez,  
baiña  
azkatasun itzalez.

Gizonaren aunditasuna  
Jaberengana eltzea da,  
Aita bcuira dago,  
maite miñak eraginda,  
itz-jardun gozoa  
sortu nairik.

Jabe ta gizona,  
aurrez aurrez legokez,  
maitasunaren ederrez,  
giza-semoak nai ha-leu,  
egia ta argia muitecki ikusten.

Gizonak  
orduan  
biziko leuke  
bere bizia  
oso-osoan  
azkatasun  
guztiagaz.  
Argia ikusgarri,  
Egia janari,  
zuzentasuna dana  
maitatzeko  
legezko  
bi de lan.

## EGAZKA

Egazka  
gorantz  
egiteko  
sortua zara,  
gizona.  
Sorle jakintsuak,  
jakituriz,  
argitu eban  
zure bizia.  
Aitak semeari  
azkatasuna emon eutson  
bere biziaren  
oiñarri.

Zoritxarra  
nundik sortu da  
gizona  
oinpean  
erabilteko?  
Otsein  
biurturik dago  
gizona itxasoan...  
Otsein da lantegietan.

Gizonak gizonari  
eskuak lotu dautsoz.  
Langilleak makiña baten  
antzera  
dagi  
bearra  
aberats baten poltzea  
sendotu dedin.

Ordu barrien jopu da  
bear geiago egiñaz  
sendiarentzat ogia irabazteko.  
Egaz egiteko jaio ziñan  
eta  
jopu biurtu zaitue.

## GAIZTAKERIA

Gaiztakeria zabaldu da gizartean.  
Mozkorra, ardauren kumea,  
sastegi baltz egin da.  
Lapurretea,  
arlotekeri gaisoa,  
esku zuriz onek...  
Ezpataz arek...  
Gosez asko,..  
Iñoren cukien on-damuak,  
besteen izerdi egarriak  
zirrikatu ditu biotzak.

Joputza jaubetu da  
gurari gaiztoetan  
eta  
giza- seme larriak  
ustela dana usainduten,  
berez barru zuzenak  
ezetsi oi daroen  
txarra  
mizketan.  
Aundiak izan gura  
zabarkeri baltzak xurgatuz

Gaiso alenak...!  
Nora jatsi zaree...  
Zorion jaube-gei  
izateko  
jaio ziñen  
ta basartean  
murgilduta zagoze  
borondatez,  
lotuta,  
katei  
gogorrez.

## NEURE

Neure barruan sartu naclin  
egirik aundiena  
ikusi dagidan.  
Jabe... Sortoa...  
oldozkai edena.

Bera da  
nire sorburua.

Ni  
Aren  
eskuko  
igalia.  
Aita jakituri ta maitasun da beti,  
bizitzadun bere umeentzat.

Orain,  
egiz,  
begiratu bear dot  
Aita ta semeen artera.  
Maitasunak sortu gaitu  
la Aitaren maitasuna  
on egiñaz,  
borez doa,  
semeen gogo barrenera.  
Aitak ez nau zigortu  
ene txarkeri orduetan,  
ez daust emon eriotzarik  
rnillaka bidar irabazirik...

Gizonak zergaitik nai izan dogu  
Jaungoiko semeak  
gizon zigorlari baten  
jopu  
biurtu.  
Ez! Ez! Seme gara!  
Azkatasuna bear dogu  
alkar maitatzeko,  
azkatasunoz bizi bear gara  
egia goratzeko.

## I XILIK

Ixilik dago erria. Isilik...  
Beren-\_  
ez dau ezer oldozten.  
Burua agortu  
eta  
biotza antzutu  
ete jakoz  
lekaro igarraren antzera?  
Pubol! Pubo!!! Pubol!!!  
ots dagie  
barrilarien jakitunak...  
Ori da  
gaztediari  
damotseerr  
gogo janaria.

Bizikleta! Bizikieta!! Bizikleta!!!  
udabarritik neguraitokoan,  
ez da beste eguneroko ogirik.  
Barruak arinduta  
uskcriagaz.  
Barruak eske...  
egia nai...  
baiña zigorra, zigorra,  
ixilik ez ha-zagoz.

Adimenak  
argia gura,  
biotzak  
maitasuna,  
ta Neri  
azkatasunez  
ez vake taketzon bizia.

Jopu  
naz  
enegan  
illunpean  
negar  
eta  
notin.

## OTS!

Ots! Ots! Ots! Gizona...!  
Egiaren indarra beioa  
gizadiari  
argi egitera.

Argiaren seme zara,  
maitasunaren igali.  
Jaungoikoak  
damotzu  
azkatasuna,  
zuzentasunaren mamia  
aldarrika eroateko,  
notin bat dagon  
tokira.

Adimenari  
zor yako  
egia,  
biotzari  
dagokio  
maitasuna.  
Gizonaren eskubidea da  
azkatasun zoria,

Ots...!  
Aidarrika... !!  
Karrazi...!!!  
GIZONA \_  
Buruen argiz  
biotzen maitasunez  
guztion azkatasunez  
argitu bear dogu  
gizadia  
maitasun  
girotan

## INDAR

Indar barriak  
bear dauz  
gogo  
ta  
gorputzak.  
Jolastu bai!  
Asarrez ez!  
Gorrotoa ez da  
notiñaren poz iturrir  
Jolastu maitasunez,  
aita baten  
seme legez.  
Ikastaroak datoz  
bizitzaren sasoi bizienean.

Indarrak irakítan,  
ametsak zoro  
nori  
eskeñiko  
ete dautsoz  
adimenaren argitze  
ta  
biotz ezikuntza?

Guraso arazo  
ta  
ardura bereziak  
goi-mugaratu dabe  
gizonaren bizia.  
Sendi zuzentzaille,  
erriktalari zur,  
egia bedi, beti,  
gizadia zuzenduko dauan  
argi iturri.  
«Egia, Argía ta Bidea  
neu naz,  
Jaungoikoa.»



## AUNDIA

Aundia zara,  
gizona,  
zure izatez,  
arimaren ederrez.  
Giza-gogoa,  
berez.  
azke  
izateko  
jaio zan.

Iñungo lakio barik,  
zeure gurariz  
zorion bilia  
egaztu bear ziñake.  
Baiña zer dabil gizonetan?  
Gizonak, makiñaren azpian diardu.  
Beti gauza bera egiten  
ordu ta urteetan...  
Teknika jopu biurtu da,  
bere egoak moztuta.

Nun dira norbere jakituri  
eta gurariak?  
Iñor dau nagusi  
gauza guztietan.  
Beste gizon batek  
edo burdiñeak  
edo makiña legeak  
ebagi dautsoz  
gizontasunaren  
aimen  
agerkaiak.

## GOGOIA

Gogoa  
urritzen doa  
lanaren  
bidez.  
Gorputza  
auldu zan  
bearrean.  
Gizonaren egin-bearra  
bearra da  
ta ondorena  
nekea.

Gogo ta gorputz nekatuak,  
jaikí,  
bizigarri billa urten.  
Aizea,  
argia,  
jolasa,  
sendatu gizonaren arnasa,

Baiña zer...?,  
zertara jo dabe  
gaurko gizonen asmobideak!  
Jolasak galdu dabe euren jite.  
Alaitasuna ilten doa doakabe.  
Gogoaren pozgarri ziran jolasak,  
alai ebiltzezan lengoan,  
amesgarri gizartean.

Orain, dirua ta dirua...,  
diruaren jopu biurtu da  
jolasaren edertasuna.  
Sal-erosketa dirudi  
gizonaren atsedetak.

## NORTASUNA!

Nortasuna! Nor zara?  
Gizon aimen aundienetarik  
agertu ziñan  
lora bakana  
gizartera.  
Egiak argitu zinduzan,  
maitasunak eztitu  
ta  
aikartasun onetarik  
nortasuna,  
dirdaritsu,  
agertu zan.

Baiña zer dakust gizadian?  
Ainbeste gizon, erdi-illik,  
ardurarik bage  
ezer ez dira.  
Nora jatsi zara?  
Nun dozuz  
adimen ta biotza,  
bizitzaren ardatza?  
Ze adur biurrik erre dautzu  
zure bikaintasuna  
bizitzaren udabarrian?

Gaur makiña bat zara  
ta zeure ezin dozu  
bizitzako alaitasuna  
sortu.  
Nortasuna,  
lora bakana,  
zelan ain arin  
fi zara!!





# ITUN

Itun zakustaz, gizona.  
Noztík ona  
buñuz bera...  
Barkatu,  
ezin dot aitu.  
Ori ez da ouskaldun tankera.  
Begiak lurrean sarturik,  
biotz bage,  
ar gorriak  
erresomindu al dautzu  
gogoaren bizia?

Asaba zarren poza  
datorkio burura,  
barru miñoz maite dau  
lengo zarren alaitasuna,  
gogoz,  
bekoki gaiñoan  
urrezko muna  
emonaz.  
Baiña ezin poztu biotza.  
Gogoak ez nai egaztu.

Lurreko auts ota burdin artean  
ez da<sup>g</sup>o argirik,  
arriak ez dauka  
biotzik.  
Lurrari begiak ezarrita,  
itun dago  
gizona,  
negarrez,  
Jopu izakeran.

## ZENBAT

Zenbat amets  
atzo  
eta  
gaur.  
Gizon, andra,  
zar, gazte,  
edonor dago barritzearen zain.  
Bizia nai da,  
barriro.  
*Berezko* egarria.

Baiña azal-bizitza,  
irudizko ederkeria,  
utsalen utsala besterik ez da  
<sup>s</sup>oitik bera.  
Oitura barrien amets,  
millatan, egin arren gabez,  
biotza utsik egunez.

Bizitza ba-doa  
bere bidez.  
Ta lagunen gogo nekatuak,  
kezkaz, gero bere darraie,  
euren biotz barrenean.

Ametsak amets oro,  
katei zar bat osotu  
gizon azkatasuna iltoko.  
Ta gero  
burua itun  
eta biotza  
larri  
bakarrik  
oituren jopu  
kezkati.

## CRINA

Griña itza] bat deadarka dogu.  
Adimen ta biotzetik dator.  
Azke, azke, azke izan gura  
norbere nortasun ikutu eziñean.

Jakituria, gizonaren oskubidea  
izpika doa  
adimen mugak argitzen.

Notiña,  
pozik,  
dago,  
egia  
datorrenean  
guzur diabruzkoak  
kentzera.  
Egiak apurtu bear dauz kateiak  
ta gogoia egaztuko azke,  
lcoien bildur barik,  
argiaren dirdaietan.

Baiña, barri utsalak,.  
arinkeriaren indarrez,  
buru-biotzak nastaukeran,  
gizon gogoia jopu biurtu da.

Ulertu eziña gizonarena;  
ongi bizi nai  
egiaren argiz  
ta  
uskerien uskeriak  
lotu ditu  
gizonen  
egazkadak.



## BIZIA

Bizia burruka da lur gaiñean.  
Goizian jaiki orduko  
korapillo larriak datorkioz  
gizon zintzoari.

Goraborak  
norberegán  
agertu yakoz,  
arazoak  
sendian  
ezin esan beste,  
gizarteko arloak  
garrazika daukaz  
zuzentasunik  
ez dan  
gizadian.

Gizon egizaleak  
artega dauka biotza,  
guzurrak egia zapaidu nai-ta,  
burruka estuan  
ibiikeran\_

Zuzonbagesan lotsa bako ori,  
biurrika zabiltz  
suge antzera,  
leoien agiñekaz  
birrindu guraz  
zuzentasunaren egi aratza.

Gaiztakeriak zapaldu nai gaítu;  
baiña, gizona, jaiki,  
geuk edertu bear dogu  
Jaun Altsuak  
sortu eban bizia.

Egíak ogia dau indar,  
berez da altsua,  
egiagaz azkatuko dozu  
gizonaren eskubidea.

## ESKU

Esku babatuak dauz.  
Esku gogor!  
Berrak jazu dauz  
lan<sup>g</sup>ille eskuak.

Ta  
nekeak,  
deduz,  
goraipatu  
izerdi  
Faziagaz  
Zgortzita.

Len Sortea irazaille,  
orain, gizona  
berragaz  
aren jarraille,  
Baiña ez da lotsagarri  
ez da iñola mingarri,  
izadia osotuten diarduon  
gizonen orti-bearra.

Lurra edertzea  
izerdi jatorragaz  
gizona duintzea da  
egiaren  
dirdaictan.  
Bearrez esku babatuak.  
egiz,  
luzatu dautso bere eskua,  
maitasunez,  
urko-lagunari.

Bearra ta egia  
bat egin dira  
gizartearen  
onean.

## EZ

Ez nau lotsatzen.  
Ez nau gitxitzen bearrak...  
Bear bidez biziko da  
lapurra  
ez dana.

Atmen eta zentzun,  
batera,  
doaz  
bearrari erantzuten,  
gizona otseinduten;  
lagunaren atal guztiak  
bearrean  
osotzen  
dira,  
gizadiari  
on egiton.

Bearra morroitza da  
izadia menperatuz  
ta mondi  
ta soloak  
landuz.  
Indar barriak dagerskuz  
gizonaren bearrak  
jakituriaren  
bidez.

Bearra... aurrerapidea...  
eikartasun jatorrean  
gizadiari laguntzen datoz,  
lur... itxaso... ta... aidean  
gizon  
azkatasun  
bidean.

## ZENBAT

Zenbat nausikeri ete dabil?  
On itxuraz agertzen dira  
norberekeriaren erpa diabruzkoak!  
Zapalduta,  
ixilik beti,  
nai lcuke erria.  
Olan bai, obeto, bizi  
norbore griñetan  
igari.

Egia,  
argia zabaltzen asi da  
gizadiaren erdian.  
Azkatasun argia zabaldu da  
Batikano'ko Batzar-girotik  
errietara.  
Egi indarark jo ditu,  
gaur,  
gizadiaren muga zabalak.  
Gizon eskubideak,  
bard in,  
dira,  
lagun guztien  
eskuetan.

Gizonak... bizkortu... jaiki...  
erriketa arazoan ekin  
zurtasunez.  
Zeu zara eskudun  
zeure erriaren eskubide  
ta aurrerapidcetan.  
Ezin itxi zeinke,  
bertan bera,  
erriaren bizia galtzen  
diruzalekeriaren  
eskuetan.

## ZUZENTASUNIK

Zuzentasunik ez...  
iFa miñaren miña dabil  
gizadia saminduten.  
Egirik ez.  
Ta zoritxarrez  
guzurrak  
triskantza itzalak  
dakarz  
gizadiaren biotzera,  
Argirik ez.  
Au samiña!

Illunpean ba gengoz, beti,  
nasaia nasaia egoteko  
aulki nausictan jarrita...,  
orren billa dabil  
sasi jakituna.  
Baiña zu Kristotar zara  
aren argia ta bizia  
zabaldu bear dozuz  
zeure gogoz,  
zeure indarrez  
ta zeure eginbearrez.

Gizadiaren bizia  
miñetan agerkeran  
ezin ziñaike lokartu.  
Egiaren aIde gudu.  
Gizonen azcrikeriak  
betirako  
argitaratuz,  
gaisoen sarniñak  
zuzentasun bidez  
gozatu daitezcan.

## BILDURREZ

Bildurrez zabiltzaz, adizkide.  
Zomorroak ez ete dira orrek...  
Norberekeriak  
sarri,  
onartu eragin dau  
mamu baltzagorik...  
Arropuzkeriaren ondorenak  
ez ba'lira,  
mozolo bogickaz  
datozan  
ederkeriak...  
Egiz, etzaitz bildurtu.  
Lengo otso ta aren zamokeriak  
agertuta geratuko dira...

Bizi ohea lortzeko  
bide barriak datoz  
orain,  
egi ta zuzentasunez jantzita  
aizatasun bidetik.  
Ez ikaratu  
pariseo girara,  
guztion eskubideak  
bardiñak dirala  
entzuketan.  
Azkatasuna zerutik dator.  
Lurrean dabil  
§izon bideak  
zuzentzen.  
Zuretzat  
ez eban sortu  
bakarrik  
gizadi osoarentzat baiño.

Azkatasuna, erdu,  
iztiok gaizkatzera!

## MAITASUNA

Maitasuna, nun zara?  
Soloetako lurra  
maitasuna  
dariola dago,  
gizonari  
bizia emonaz.  
Lore bakanak  
gizadia alaitzen dau  
bere oder guztiagaz,  
azkatasun zoramenagaz,  
izadiari oskeintzen dautso  
bere usain bizia,  
giza-semea  
aren bizi garrez  
zorabiatu rik.

Mendian maitasuna dago.  
Gailurren ederragaz,  
dardaraz daukat gogoa...  
Oianen itzalak astindu daust  
barrunbe sorlaria...  
Aize ego bageak  
igortzi ditu,  
maitekiro,  
bedar jaio barriak.  
Nire gogo ta mendia  
besarkuta dira  
bake ez tian.  
Mendi aundia barruan sartu yat.

Irudi zorakorra  
ene biziagaz bat eginda,  
maitasun garretan dabiltzaz.  
Maitasuna iturrian,  
maitea zugatzean,  
maitasuna zelaian,  
ta gizona izadiko maite artean,  
oso-osorik,  
nekeak arintzen.

## EMOTEA

Diru emotea ez da naiko.  
Ori utsean  
ez da  
maitasuna.  
Ondasun guztiak banatu  
beartsuen artean,  
baiña zer...  
goi-maitasun barik...  
ezer ez eta utsa  
izango da.

Zenbat bidar...  
baketu nai izan ete da  
gogapearen ots arrizkoa?  
Baiña iapuraren kezka  
beti, aurrera.  
Zorrotz ots egin,  
ixillean,  
ezpata baten indarragaz,  
biotza zulatzen.  
Limosnak zabaldu ebazan,  
bizi beartsu batzuk poztu...  
Urtia jaun audia da, iñoen  
kalertzian  
lagun batzuk.

Baiña limosnea ez da naiko  
lapurretea  
garbitzeko  
egi  
ta  
zuzentasun  
orduan.



## **BEREZ**

Maitasuna, berez, da igikorra.

Argia,

poza

dario

biotz

maitaleari,

bere ateak

edegikeran.

Ontasun jarioa

biotz iturritik

zabaidu dau.

Onaren lillura ezarri dautso

biotz guztieri.

Berez sartu da

lagunen barnean.

Maitasunak

iñoren biotzean

urtzea nai dau.

Maitatu gogoz.

Maitatu egitez...

Berez urtzen dago

urkoa maitatze-arren.

Nekerik ez dau asmetan

iñori on egiten.

Maitasuna urrea da

ta maitatua urretua.

Onoimenen onoimena

goimaitasunaren muna,

lur guztia

zoratu dozu

zure ederraren

munagaz.

## ITXAROPENA

Itxaropena  
orlogiz jantzi da  
bizitzaren udabarrian.  
Zenbat amets!...  
Ta urrezkoak gaiñera,  
uda ta negu guztirako  
laguna  
aurkitukeran.

Gogoak gogoratu daust,  
biotzak maite dagist,  
iñoz aspertzeka,  
aren irudi edorra.

Goizian ikusi nai neban  
zure irudia,  
mutilla...  
gabaz,  
amets egin dot,  
baiña zu,  
an urrin,  
itxasoan,  
ur gaiñean,  
bearrean,  
gizon jatorren  
legepean.

Aizez doakizu oroimen bat;  
zukanaiño eldu arte  
uxatu dot,  
nire egia,  
maitasun indarrez,  
gaur goizez,  
garbi-garbi,  
oroi nagizun  
zuzentasunez.

## GBZt11A

Jaungoikoa. Gezna. Erria.  
Gizonak barri on bat  
artu dau  
betiko bizitzatik.  
Jabek esan dautso gizonari:  
aZuek zaree lurreko gatzak.  
Lapikoari iratzak kentzen dautso  
janari gezearen  
mingostasuna.  
Gatzak zuzendu bear ditu  
iurroko bizitzaron  
neke mingotsak.

Baiña  
nora  
doaz  
gizonak  
gatzari  
igeska?

Gizadia...! Jaungoiko erria  
kezkaz minberatuta dager.  
Mindua, bertan bera, izten ba'dogu,  
gizadia samiñetan  
gogaituko da.  
Beroz atsituko da  
ainbeste txarkerigaz.  
Nuii dira gizón  
eta  
artzain gatzdunak?

Gatza galdu ete dabe  
egia ez jagoteko?  
Indarrak  
bizia zaintzoko dira,  
ona errian zabaitzeko,  
epelkeriak  
adorez ausita.

## AITA

Aita-goikoari  
eskua jaso,  
arpegiz ziñu egin,  
Jaungoikoagandik  
banandu:  
izugarrizko  
obenak  
dira.

Geure izate zorra dogu aregaz.  
Berari men egitea  
zuzentasuna da.  
Jaungoikoaren seme dira  
giza-seme guztiak...  
Onegandik banatzea  
beste oben ikaragarri bat da.

Gizonak,  
osasunez,  
zaurituta,  
goseagaz  
zuri-erkinduta,  
kurutzea euren bizia  
gau ta egun,  
lorrez,  
josita ikusikeran,  
iaramon bere itzi  
ta gatzaren ingurutik  
alde egitea,  
makalaren koidarkeria da  
argirik nai ez daben  
buru illun  
biotz gogor.

Oben zekena dago or  
gizadia ondatzen piztikor.

## GIZONA

Gizona utsa ez da.  
Gizona zerbait da.  
Adimondun ta biotzdun  
dan ezkerro  
giza-semea,  
piztikeraz,  
ezin leike  
bakarrik  
jokatu.

Piztiak, jan da lo, zer dan ba-daki.  
Adarkadak, berez, emoten dauz.  
On egitea  
zer danik,  
ostera,  
iñoz,  
ez dau ikasi.  
Orretarako atmenik ez dauka.

Gizonak,  
argiz  
eta  
biotzez  
jokatu bear dau,  
Gizarteko gora-beron ardura  
berez,  
anai legez,  
barruan daroa.

Gizarte arazoak  
eta  
erriketa eginbearrak  
guztiak eta bakotxak,  
agirian nai ixittean,  
astindu bearra daukagu  
erriaren onerako  
danean.

## AU

Au da kurutzea!  
Arazo bete bearrak dira.  
Ta ain gogorak egikeraz.  
Ain biurria  
ez litzake izango,  
gizonak  
gizon  
balitzaz.  
On-zale  
egiaren  
aurrean.

Baiña gizonen maltzurkeria,  
egia aoz artuta,  
noraiño  
eldu hear etc dau...  
Zenbat norberekero  
legearen izenean...  
Zenbat txakurkeri dabil  
norberekoria  
asetu eziñik.

Bien bitartoan  
gizartean,  
lagunak nogarrez,  
zigorrez,  
zuentasuna eskatzo-arren.  
Ze kristiñautasun da au?  
Ebanjoliarik nai ezta...!

Gizon onak on egin eben.  
artzaiñak. begiratu, ikusi,  
zuen ardi onak  
giltzapean  
zaurituta.

## BURRUKA

Gizonaren bizitza burruka da.  
Janari billa,  
ondo bizi guraz.  
Ta beti  
alperrik.  
Atsedean osorik  
ezin aurkitur  
Burrukak norbere gogoz,  
ezpai gogorretan.  
Burrukak iñoren aldetik...  
Goseak,  
ezpetxeak,  
ilteak...  
gau baltzeko  
tximist artea  
gizadi  
saminduak  
dirudi.

Zuzentasunik ezta  
goi-maitasunari deika;  
on itxuraz  
edertu nai al da  
zuzenbagekeriaren  
edena?  
Le.oiak azke dabiltz,  
orroaka,  
bildotsak negar  
bere samiñetan.  
Guzurtokian okerrak nausi  
adar ezpataz egiak ilda.

Eroapena, eroapena!  
menpekoentzat  
onu orren lotsagarria!  
Nork bedeinkatzen ete ditu  
lotsabagekeriak  
lurrean?

## GIZONTASUNEZ

Gizona gizontasunez  
agertuko al da lurrez,  
alperrik etzan gorritu lurra odolez  
gizon jatorren zuzentasunez.

Gizona gizontzen danean,  
lurretik igesiko azerikeriak,  
sasiak erreko dira,  
guzur naskagarriak birrindu,  
nausikeriak  
joko dabe  
lurra,  
norberekeriak  
ilko dira.

Egia,  
jaiki adi  
cure indarrez,  
tolesgetu egik  
guzurraren  
maitzurkeria,  
noz edo noz,  
lotsadu dedin  
diru... aragi... ta arrokeriaren  
lizunkeri  
gaizkillea.

Griña bide-bageak  
ez dagiela  
iñoren eskubiderik  
zapaldu;  
irrits gaiztoen erre auts artetik  
sortu dedilla  
egiaren dirdira,  
gizadiaren argia,  
biotzak urretuko dituan  
maitasuna,  
gizonak gizonduko dituan  
zentsuna! !



## BA'DA?

Gizona  
gizon  
ba'da,  
gizona  
maitagarri  
da.

Berez  
da  
goragarri  
egiaren jakituriz,  
maitasunaren ontasunez,  
zuzentasunaren indarrez,  
gizontasunaren zentzunez.

Ona bere eskubidez zabaltzen da,  
biotz tolesbagean jaiota.

Iñork  
ez dau  
izkillurik  
egia,  
dongakeriz,  
zapaltzeko;  
gizonak  
ez dau  
ezpatarik  
egia  
gogorkeriz  
il teko.

Geure eskubidea da egia.  
Akerren ankerkeria litzake  
adar okerrezez egia suzitzea..r

Edo guzurragaz ondatu  
edo egiagaz azkatu,  
gaurko deadarrak sutsu datoz,  
azke bizi nai dabela  
erriak eta gizonak  
gizonen  
eskubidetan.

## MIN

Min zarrastada bat asmetan dot.  
Odolak lertzen daukadaz dar-dar.  
Guzurra, berez, gorroto yat;  
ta guzur artean bizi bear.  
Guzurra da egia esan bear danean  
egi ori estaltzea.

Miñik  
emongo  
ez ba'leu...  
Iñor  
zapalduko  
ez ba'litz  
jokera  
gaipto  
orren  
bidez...  
Ta egia ixil-erazo nai dauskue.  
Gizona zapalduta txarkeriz!  
Jaungoikoa  
oinperatu nai da  
guzurraren guzurrez,  
norberekerien maltzurkeriz.

Ezpatari bildur aundia yako,  
betiko epaia azturik.  
Egia ez nai gizonak...  
Egia itzi esan barik  
berez arduradun danak...  
Negar ta negar  
negarrez landerrak.  
Poztu eziñik nekepean  
malmutzen maltzurkeriak  
dirauen bitartean.

## ZARA

Gazte zara gazte  
aimen gorenen jaube.  
Buruan argi dozu,  
biotzean maite,  
izatean indar.  
Errai guztiak yabiikizuz  
arduraz darlar.  
Egia  
da  
zure  
argi  
iturri,  
zuzentasuna  
akulari.  
Maitasunez  
erre  
nai  
zendukez  
gizadiaren  
lau  
mugak.  
Ta ainbesto ezezko...  
Zenbat jokabide ezpaiko  
gizonen  
bizitzak  
urra tzen...  
aragiak  
odoitzen.r.  
Indar gaiztoa  
nausi *ete* dabil  
Jaungoikoaren  
bideak  
gizadian  
ondatzen?

## BIKAIN

Gazte bikain zara.  
Biotz osoz abade.  
Egia zabaltzea  
zin egin zenduan,  
Ebanjelioaren gain  
oskua jarrita.

Gaur  
ostera  
guzurra  
dabii  
egiaren  
ordez  
goiak  
artuta.  
Esnatu bedi  
zin deunaren indarra.  
Oiñestari suagaz  
guzurra erre dedin.

Oiñestari txinparteagaz,  
egia,  
indartu adi.  
Zure itzaren  
indarrez,  
zure bizitzaren  
ereduz,  
betor zuzentasuna,  
ludiko lora barria,  
gizadia  
argitzera.

## NAI...?

Oterkariak ez dau siñistu nai?  
Jakitunak Jaungoikorik ez at dau nai?  
Bcargiña Kristo beargiña  
ukatzero etc doa?  
Ertilariak curen argi txintetan  
izadiaren ortilari gorena  
baztertu naian al dabiitz?

Aberatsak ezin ditu maite,  
ora batera, Jaungoikoa  
eta  
dirua...  
Zuzenbagekeria  
eta  
zuzentasun deia,  
aurrez-aurre,  
dabiltzaz  
eta  
gizadia  
oiuka  
negarrez.

Abade barriak  
zin egin eban,  
Kristoren ízenian  
egia  
agertzeko...  
Kristo  
egiaren izenian  
il zan.  
Abadea,  
zu ilgo zara,  
urrengo  
Kristoren  
izenian,  
erria  
maitatzen.





## GOGAI

Gogai ez-bardiñak  
arerio dira.  
Aundikeria... ta... apaltasuna  
ezin dira buztartu.  
Aberastasuna... ta... oza  
gizonen  
arteko  
burruka;  
otso ta txiñurri arteko  
asarroa  
iduri.  
Zergaitik...  
bataren aberastasuna,  
ain aundia,  
zergaitik?  
Bestearon ez euki  
ain tristea...  
Orain bi milla urte  
Kristok  
maitatzeko  
agindu eban.  
Arraio pola!  
Orain bi mitla urte ots ogin eban:  
«Uger dirurik  
ez egizue batu  
zuen bizitza  
betirako  
ondata ez dadin».



## BURRUKARi

Egia... ta... guzurra  
burrukan dabiltzaz.  
Egia argi dirdiraz...  
Guzurra... oker arroaz  
laitio kaltzak baiño  
okerrago...  
eguzkiaren argia  
itzali nairik.  
Petrala!

Egiak, bere indarrez,  
ba-ditu  
bere jarraitzaillak.  
Guzurrak txarkori gogorrez,  
arloak arlo,  
ba-doa  
gizadia  
atxurtuz.

Guzurra aidean dabilr  
Goian, aundi —biribiilak—,  
bota alako ats-zaarrak...  
beian gero ustelduta  
zabarkeriagaz.  
Egia nai  
eta  
guzurra erabilli;  
nork esan dau guzur ori  
\*izadiaren  
ondamendi?

## KAIOLA

E<sup>g</sup>ia odoletan.  
Guzurra bitsetan.  
Kaiola baten  
sartuta nauka  
egiaren  
maitasunak.  
BAI. BAI. EZ. EZ.  
Gauza guztiak diran lez.  
Bi indta urteko  
deadarra  
danez.

Itzen Japurak dabittzaz,  
guzur saitzaitteak,  
txuri-txuri jantzita  
surpc baltzagaz.  
Azalez eder...  
Barrua lizun...  
Ondasun bidebagckoak  
eta  
nausikeri norberekoiak  
darabiltzazonak,  
iñoz,  
ez dabe nai  
garbitasunik.

Bien-bitartean,  
basauntza  
ur gardenetara doa,  
egarria  
kentzera.

## SALTZEA

Guzurra...  
Lapurreta...  
Saltzea...  
Kalte-egitea...  
Zapaltzea...  
Lizunkeria...  
Bíraua...  
Nagusikeria...  
Arrokeria...  
Salatzea...  
Min emotea...  
Zer da au?

Nire barruan, ostera,  
zuzentasun egarri bat  
asmetan dot.  
Zuzentzaillerik ez ete dagon  
datorkit burura.

Bai,  
oneri ta gaizkilleri  
saria edo zigorra,  
bakotxari berea  
emongo dautsona  
ba-da,  
ziurki,  
gizadiari  
begira.

## GABA

Gaba ta izadia  
oder-giroz,  
maite miñetan  
ezkontza bat  
irudian.  
Maitasuna ixii-giroan.

Atsedean ezta orion  
ama lurrak.  
Illargia, an goian,  
bakar-bakarrik,  
aidean jakituriz.  
Duban arturiko argia  
maitasunez,  
bakez,  
lurrari eskeintzen.  
Gau ta argiaren  
maite ezteguak  
bakez gozartzen.

Ni  
bakarrik  
izadi  
aurrean.  
Txakurak ixilik basetxean.

Lugiña  
bake artean murgilduta,  
lo sakonean  
maitasun  
gela  
zurian.

## ILLARGIA

Illargia ta gaba  
alkar adi biak.  
Ederra... Maitasuna... Jakituria  
zoragarriak irurak...  
gau zoriontsu ontan  
datorkidaz  
nire gogoan  
esna erazoten  
ederra ederrez,  
maitasuna miñez.,  
jakituria argiz.

Illargira noa...  
Lenengo gizona  
gaur  
gabaz  
ame tsez  
eidu da...  
Au zoriona!  
Urdiñean zear  
egazka jo dot  
andre itlargiren  
magalpora  
eldu arte.

Amets igoeraren ondoren  
jakitun astunak  
burdin artean  
igon nai leuke  
al dabenean  
illargira.

## GOIKO

Gaba.  
Iilargia zeru urdiñaren altzuan dago.  
Izarrak ortzian,  
jakituriz,  
goiko tegean  
bidaztien zuzendari.

Ni,  
gizona,  
lurrean,  
txiki-txiki,  
arrituta,  
maitasunez,  
adi-adi,  
ortzera,  
itlargira,  
izarretara;  
lurrera,  
montar ostera,  
ibaira,  
zeiaira  
begira.  
Ainboste eder!!

Egillea.  
Jakituria,  
Aala  
Nun zagoz?

Emen nago.  
Beti, izadia sortzen egonoror  
Gabaz itzarrik  
bizia eskeintzen  
gizadiari.

## DOA

Eder.  
ittezkor dager  
izadia  
gaberdi  
aurrean.

Zelaian  
lurrun zuri bat  
sortu da  
zearka,  
ixilik,  
barru miña  
darioia.

Berez doa gorantz,  
jakituria goratzen,  
ederra iaztantzen,  
Egillea aipatzen,  
Saungoikoa gurtzen.

Esan da esan diardu...  
aspertzeke:  
«Ni ba-naz,  
bizi naz;  
batek ezagutzen dau  
aire zera  
bakarrik,  
egin ninduan  
Jaungoikoak»r

## GAU

Gau izartsua.  
Suak erro ortzean  
oztin artean.  
Bala-besteagandik  
urrin,  
arin,  
tximist otsean,  
burruka bage,..

Nork sortu ditu  
ainbeste su,  
eskuak crretzeke?  
Gizonak...?  
Ez. Ez. Ez.  
Erre egingo litzake  
esku eta gorputzez  
suaren  
garren.

Nor dabil  
or,  
goian,  
egaz,  
gorputzik bage  
gogo uts  
izar suak biztuten?

Berez danak  
bere aalez  
zeru ta lurra  
darabiltz  
maitasunez.



## BIGARREN

Bigarren amaikak dira  
uda goieneko ortzian  
gabaz.  
Begiak eder miñetan...  
gola zoragarri...  
boga—boga doa illargia...

Gaur izartar ba'nintz,  
begiz lez gorputzez,  
illar^rira ioango nintzake  
gizonari  
barriak  
biaitzcra.  
Larrea dario  
argi biurlurik..r

Gora,  
bera,  
albora  
begira,  
barrua ostu daust  
zenak  
aundiz,  
urdiñen,  
argiz,  
oderrez.

Eno begiak bat egiñik dagoz  
inguruaren  
zorakortasunez.

## DAGO

Gaba.  
Guztia ceder ta ixilik dago.  
Zabaldia bakez.

Lagunak izera artean  
neke atsedenduteak  
emon oi daben  
pozez.

Arau  
ota  
miñak  
itzalez.

Bidazia ba-doa  
ardao baltzez boterik,  
sorgiñen gomutetan,  
arriak ostopo aklatz gura  
Makillari oratuta  
etsaien bildurrez.

Mozoloa  
oiuka...  
Ugarioak  
karrask...  
Apoa «do» «la» tan.  
Ur txakurra zaunkaz  
eta  
marnorruen eres-batza  
ixillaren bakea  
eztiki zaurituz  
belarriak ciardara tzen.

## MIÑAK

Miñak... esamesen... edena... dario.

Serapiñaren

ittinti

gorria

ba'neuka

gizonen miin latzak

goritzeko...

Ez! Sua naiago dot

gizonen miin sugezkoa

ao ustela

garragaz

erretako.

Miin gaizkitleak

zapaldu eban

<sup>g</sup>izon zuzenaren bizia.

Gero,

espetxean

zigorrez

zaurituta,

osasuna

galduta,

betirako ondatu zan

bizi garbia.

Emazte leiala bakarrik...

Umeak aitaren poz barik...

Negarra...

Gosea...

Zer...

Zergaitik dabil

min txarra

biziak

ondatzen?

## E SAMESA

Esamesa azke.  
Guzurra,  
aundiki,  
dabii.  
Zer usteldu da gizartean?  
Biotzak urratuta.  
Barruak negarrez.  
Olerkaria,  
noz,  
jaikiko da  
gaiso la zapalducn  
alde!  
Egizaieak nun dira?  
Zuzentasunak bea jo dau.  
Gorputzetan zauriak dagoz,  
miñak lagunetan,  
gizonak itten  
üzurraren crpetan..r  
Sardea,  
atxurra,  
aizkora,  
nun zagoze  
guzurra  
eta  
guzurtia  
austeko?  
Sua nun da  
guzurtiarcn  
grña txarrak  
erretako?

## EKIÑA

Guzurrezko ekiña  
zergaitik ete dabil  
ain nasai,  
gizartean sartuta,  
iotsabagekeriz,  
biziak sapustulen  
miñaren miñez?

Oiñestarria, nun zagoz,  
zizt eta bizt  
esames kaltegarriak  
erretako?

Maillulria, zertan zabiz  
jardun gaizto guztiak  
i<sup>g</sup>etaiaren agian  
birrindu bage?

Txakurra,  
ainbeste .ruzurti  
zelan,  
sartu dira  
zure etxera,  
zuk  
aginka  
egiteke?

Katua,  
zergaitik il dozu  
arraitoia  
gabean,  
guzurti aundiak  
lo  
itzita  
orean?

## BAT

Mutiltxo bat.  
Ule gorri-gorria  
zelaian  
ikusi dot,  
ara ta ona,  
irri-barrez,  
gaur  
goizoan.

Zeren billa  
ete dabil  
uso carbiaren  
antzera  
mendi  
gaiñean?

Zer izango ete da  
euskal gizadiko  
landara barria...  
Go<sup>o</sup> zuria...  
biotz garbia...

Iñoz,  
maitatuko ete dau  
bere "riaron  
bizia?

Landara gorria,  
egizale izango al zara  
euskal-erria  
landuteko  
argi  
eta  
zuzentasunez  
bere  
bidean?

## **BASO**

Baso barman nago.  
Ira... Pago... Aritz...  
Izadi guztia  
usainduta dago.

Ori da bizia,  
pago sendoa,  
bosteun urteko sustraia,  
kana ta erdiko gerria...  
Izadi orlegia,  
zer dakust?  
zer dantzut?

Ederra,  
Ona,  
Maitasuna,  
ertia...  
Euskal basoak  
on jariotan dagoz,  
erraiak  
zabalduta.

Erdu, erria,  
zeure basora,  
ementxe dago  
bizi garbia  
indarrez  
betia.

## BABESA

Zumetxaga  
garbi  
oztin...  
Mendi gaiñean  
jarri eben  
gure gurasoak  
goi aingeru aren  
babesa...

Mikel deuna  
euskaldunen zaindaria...

Erriaren nekeak,  
samiñak,  
burrukak,  
kurutzak,  
zelaitik ikusirik  
zer dirautzu  
erri saminduak?

Zuzenbagekeriak  
zapalduta dauka  
erria  
odol eriotan...

Berez, zor yakon  
bizia,  
ez dauka  
zure magalpean  
dagon  
erriak.



## ZERGAIK

Zergaitik?  
Zer... Zer...?  
Gizon zeia  
beti, azpitik  
maiiukiaren otsak  
artzen.

Aundiak  
zurikerietan  
dabiitzaz...  
Nausi *goian*.  
Ezeren bildurbage...  
Lotsea,  
iñoz edo sarri,  
oinpean...

Ai otsoa!  
Zure naikeriak  
betetako,  
gizon errubagea  
gaizkiiletzat arturik,  
iraiñez beteko dozu...

Gero, guzurrez  
gizon onaren bizia  
ondatzeko.  
Zeu  
arroki  
urjan  
nausikerietan.

## BATEZ BERE

Beartsuenak zireta,  
batez bere,  
zureak  
agertu zenciuari  
Kristo..r

Beartsuena egia...  
Beartsuena goi-izparra...  
Beartsuena zero

eukiak  
maite zenduzan,  
bitdotsik  
garbienak  
zírari da.

Txikiak dira,  
beti,  
ludiko baztertuak...  
gogorik soiilenak...,  
biotz zabalenak.

Egia egizaieentzat da.  
Ariga buru garbientzat.  
Maitasuna on zaleentzat.

Eta  
errubageko  
biotzetara  
doa  
zeruko  
bakea.

## Z U

Josu,  
Zu,  
Jainko  
Itza  
ziñan.  
Jakituria...  
Izadi osoaren Sorlea.

Baiña txiki zalea ziñala,  
egiz,  
txiki,  
beartsu,  
maitalari,  
agertu zaiakuz  
estalpe gorrian,  
txiro-txiro,  
jaiota  
gizonen  
artean.

Beargiña zan  
zure aita ordeko  
lurrean.  
Arotza,  
beti,  
lanean ebillena...  
izerdiz,  
ogia irabazi  
ta  
semeak  
nekearen ogia  
jaten eban  
gizadiaren  
opari  
izateko.

## ORDEZ

Egi ordez guzurra...  
Maitasun ordez sapukeria...

Eredu ori  
emoten dabiltz  
gizonak,  
goitik bera,  
argi-mutii ustelak  
laiñu baltzak  
zabalduz.

Bizia  
ori  
al da?

Zuzentasun ordez  
norberekeria,  
zalekeri baltzenak  
nausi jarri dira.  
Gizonak ezpaian...  
Iñoren  
grña txarren  
jopu.

Egi irudizko guzurrak  
agopean  
txarkeriak  
zuritzen.  
Ta ezpata zorrotza  
eskuan,  
bildurrez  
gizonak  
ikaratzen.

## OKOTZERAJÑO

Zergaz okotzeraiño betetu.  
Baztertu.  
Zapaldu.  
Zigortu.  
Espetxeratu.  
Ixilik ez badagoz,  
euren gogoak  
minberatu,  
curen goputzak zauritu.

Aren biziak lotsatu,  
ixittean,  
gogorkeriz,  
agirian,  
maltzurkeriz,  
ez dabe eskubiderik  
gizonen erakorik.

Gudaren eskubideak  
geuk daukaguz...  
Geure  
legearen  
arauz  
il bear doguz.  
Pilato ta Kaipas  
alkarturik,  
adizkidekeri...  
keri... keri... keri...  
erri arnasa il guraz.

Nungo zuzentasunaz?

## NAGO

Gogoa  
jausi yat,  
entzundakoen  
lotsariz.  
Samiñez beterik nago.  
Asarreak dirakit,  
berez,  
bizia apurtzeraiño.

Gizon zartxoa,  
zure izerdiekaz  
gorputza  
urtu dozu.  
Zure nekeokaz  
azurak igertu;  
zure indarren bidez  
lurrak arrotu  
eta  
arduren arduraz,  
lurpean  
erein zenduan  
aziaren  
igale billa.  
Orain,  
zergaria yatortzur

Ez al da iotsarik?  
Ez al da,  
gaurkoz,  
iñun,  
gizontasunik?

## LAIÑO

Laiño... Tximist... Trumoi...  
Izadiaren indar itzal onek  
nun dagozan  
ba'neki,  
gaur,  
guztieri,  
dei egingo neuskioe.

Basoetako looiak,  
nun dabiltzan,  
esango ba'leuskide,  
ointxe,  
guztieri,  
karraziz,  
deituko neuskioe,  
lapurreta guztiak,  
bein,  
izadiko zer garratz  
eta  
pizti tzarrenen  
bildurrez  
amaitu daitezcan.

Trumoiak gogortu,  
leoiak jaiki,  
eta  
gizoneri esan  
arin,  
izteko  
lapur  
bidea.







## ZER?

Ixilduko ba'nintz... zer?  
Lotsagaldukoak,  
aurrera,  
joango litzakez  
euren bidetan,  
gaizpideari  
bideak emoten...

Nasteari,  
burrukari,  
txarkeriari  
santukriz,  
egoki,  
bideak zabaltzen.

Zer ete da norberekeria?  
Zer dirukeria...!!

On itxuraz  
gaiztakerietan  
atzipetuta,  
Ieoiak dabiltzaz  
ardiz apainduta  
erriak nastetan,  
gizadia joten  
buru-buruan.

## NAI

Ez dot ixiidu nai.  
Obena itzake.

Lapurretan,  
odolez,  
iortutako garaitza  
ustelduta dago.  
Bizia ondatzen.  
Ingura atsetan...  
«Biziaren» gaitza  
buruetan sartu da.  
Ots, gazteak, ots.

Leza  
baltzeko  
illobi  
ez dakigula izan  
gure  
erria.

Jaiki,  
atxurrak artu  
onkeri baitz  
eta  
malmuzkeri  
lotsagaldukoa  
buruan jo  
eta  
austeko,  
egun sentia  
datorrenean.

## EKIN

Garrazika ekin.  
Ots beti,  
argia ta egia  
agertu arte.  
Illuntasunak  
jo dagiala lurra.

Ezpataz  
iñok ez ditu ilgo  
zuzentasun gogoak.

Maitasuna betor,  
soiiiiik,  
gizonen biotzak  
azkatzera  
azkatasun merezian.

Egiak ausi bear ditu,  
goiz  
edo  
berandu,  
guzurraren erpeak.

Zuk  
ilgo dozu  
ustelkeria,  
gizon  
malmutzen  
zatarkeria.

## EGIZU

Abadea, ots egizu.  
Zeure  
borondatez,  
ots  
zeure  
*egi nbea rren,*  
egiaren  
bidez  
*e rriaren*  
alde.

Gizadia samiñetan dago.  
Negarrez.  
11 zorian.

ABADEA,  
jagi zaite,  
Kristoren odol arren,  
*gizonen* biotzak,  
maitasun illezkorrak  
gogo zuzenez  
indartzeko.

ABADEA, minberatu,  
zuzenbagekeriaren  
menpean dagon  
erri minduagaz.

Garrazi,  
erria jaso arte;  
dei,  
iĭl arteraiño,  
erriagaz bat eginda,  
egi bidez  
gizonak gaízkatzeko  
betirako.

## **DABILTZAZ**

Malmutz-zarrak  
diabrukeriz dabiltzaz  
iñoren odolez  
bizi nairik  
gizadi  
zoribagekoan.

Gizadiak  
origaitik,  
min dau  
biotzean.  
Negarra  
begian.

Izate guztia,  
berez,  
goraka dagokio,  
asarrez,  
lotsagaldukeria,  
noz,  
amaituko ete dan  
begira  
gizon  
azpiratzaileen  
biotz  
ankerrean.

## I ÑORK

Iñork  
kenduko  
ez daukun  
gatx-aldia  
datorkigunean,  
zauriak  
zirikatuko gaitu,  
miñak mínberatu,  
odolak sukartu,  
naibageak zapuztu,  
gaisoak naibagetu.

Bakarrik  
egongo naz,  
gizadira  
begira  
eta  
nire biotza arrenkuraz,  
maitasun Laguntza,  
nundik,  
agertuko ete dan  
samin orduan.

Lagun zintzo bat  
ikusi nai neuke,  
orduan,  
maitasun egitez  
kurutzak  
arinduten.

Egia ori da.  
Maitasuna, on-garra,  
iñoz,  
asarre barík  
zauriak oriotzen.

## ONDO

Ondo etorria,  
maitasun-arren  
on-egiten  
datorrena.

Zoriontsuak biziak.,.  
Zorioneko biotzak  
errai naibagetuen samiñak  
arintzen  
dabiltzanean.

Zorioneko eskuak  
gaisoen zama astuna  
eroaten  
laguntzera  
doazanean.

Zoriontsuak miin eta ezpanak!,  
egiz  
eta  
maitasunez,  
gogoaren samintasunak  
argi txinta zuriagaz  
poztu dagiezanean.

Zorionekuak oiñak!!!  
ezeren zorrik bage,  
gaiso ta beartsuak  
ikusi  
eta  
on egitera  
eltzen diranean.



## ESANA

Esana. Egin! Egin!  
Jarraian.  
Luzaro.

Toto izena artu arren... zer?  
Toto izatea  
iregantzen ba'dok be, zer?  
Nortasuna galduta bere, zer?  
Esana. Egin! Egin!  
Burua makurturik...

Zergaitik damostak,  
aizkide,  
agindu ori?  
Esana dagianak,  
bere agindua  
bete dagi...

Begiak itxita,  
buruz bera,  
apal itxuraz,  
makurtuta,  
nai ta barniz  
ernegetan,  
buru jokabide  
galgarrietan.

Bide ori jarraitu...  
gizon izatea erantzi,  
beti, burua  
makurturik.

## IÑOREN

Iñoren menpe  
ba'lego  
nire makillari nausia...  
Gizon ezpata zorrotza  
ba'lebilkio  
zirika...  
Andra-gizon aberatsak  
ei dltu onulari...  
Erriketalaríak  
ba-ditu keiñulari...?  
Itxututa  
ba-dago  
bere-baitan,  
gogorki.. ,  
Lengo jokabidetan  
nastauta ba-dabil...  
Bere ardura da ori.  
Or konpon bedi.  
Ba dau bere barrua...  
ez al da izango utsa.

Jakituri guztia  
goi aidean daroa,  
egun sentían  
menditik  
txoriak  
ekarrita.

---

## ZER DIRA

Zer dira,  
orduan,  
lagun esangiñak?  
Gau ta *egun*,  
ate ondoan dagon  
kateiko txakurra?  
Ez! Ez!! Ez!!!

Etxe baltzeko  
mandazaiñaren  
ukuilu barreneko  
mando zamalaría ele?  
Ez! Ez!! Ez!!!

Txoriak uxatzeko  
garitza erdian  
dagon  
belakuso prakazarduna?  
Ez! Ez!! Ez!!!

Ez ai dabo bururik!  
Ez eta erantzupenik!  
Ez al dira gizonak!  
Bai! Ba-dabe. Bai!  
Ba-dira, bai...  
Baiña curen buru  
eta  
erantzupenak  
asto zamalariarena  
egiteko  
dirautse.  
Eroan aiako zama artu  
eta  
narrazka jokatu  
lerraren lerrez  
luna jo arte.

## ESANA

Esana egin, buru arin.  
Baiña edozer?  
Bai! Ez ukatu  
iñoz ezerr

Agintzailleak, beti,  
guztia daki.  
Txorien egazkadak  
goitik damotse  
argi uts-eziña.

Esaneko danak  
buru-biotza,  
gogoz,  
zapalduta,  
aurrera,  
jo bear dau  
itsua  
da-ta.

Beti,  
amen, amen, amen,  
guzur edo egi  
agintzailleari  
beti, beti, beti.

Baiña ez deritxat  
egizko  
bide orreri.  
Ta zer... egia galdu ba'da?  
Zuk, beti, jarraitu  
nagusiarir

## BAIÑA

Baiña, alan da guzti be,  
kezkaz nago.  
Guzur ala egi,  
edo aginpideari,  
nori edo zeri  
jarraitu bear yako.

Askok diño ezpatari...  
Baiña esan ori  
bai al'da  
egoki?  
Aí, ez. Ai, ez! Ez!!

Olakorik ezin neike  
barniz  
erabagi.  
Bildurti ez izan.  
Esana  
egikeran,  
iñoz,  
utsik ez dago.

Guztia,  
zuri-zuri,  
agertuko da  
beti,  
ederkerietan...  
barniz baltz,  
baiña  
azalez  
eguzki.

## ALKAR

Alkar-izketalariak  
ardi bi ziran.  
Arrituta dagoz  
esamesen  
giroz.

Bien bitartean,  
artzaiñaren txakurrak  
artalde uxatu dau  
mendi bizkar  
eta  
oianak zear.  
Ai! nora doaz,  
artalde osoa zorabiatuta...

Ta txakur lotsagaldukoak  
zer dabil,  
zaunka ta zaunka,  
ardiak sakabanatuten...

Zer dala-ta... artzaiña  
etxean bakarrik...  
Nork esanik egin ez.  
Lagunok igeska.  
Oba izango zan,  
eurekaz bizi izan ba'nintz.

Orain, erreguka.  
Baiña nori?  
Ardiak zelaitik  
urrin joan dira,  
artzain txakurrak  
bildurtuta.

**ZER**

Jakituriaren argía,  
zer  
zara  
zu?  
Ederraren ederra,  
zer diñozu?

Zuen sort-iturria,  
ain almentsu,  
nun ete dago,  
ixiiik,  
ta ain indartsu?

Gizonak biila gabiltz,  
on zaletsu,  
egiaren sustraia  
nun aurkitu.  
Argiaren indarrak  
zetatu nau,  
ederraren dirdaiak,  
berez, mindu;  
zorabiatuta nago  
osorik.

Jakintza eder,  
nundik  
zabiltzaz  
zu?

## EGUNAK

Egunak... Iiiak... Urteak...  
aurrera doaz,  
arin.  
Ordu baltzak,  
miñez josita,  
ezin il-erazi.

Bizien bizia  
zergaitik da  
ain pozgea?

Gorrotoa,  
zuk zergaitik  
naibagetu bear dozuz  
gizona  
eta  
andrea  
eta  
umeak  
eta  
erria?

IIIun dago.  
Garrazika dabil gizadia.  
Gizakume leoiak  
odol-ustu  
nai ete dau  
erria?

Ez! Ez! Oiakorik!!  
Ez dot nai  
ikusi.



## KIRIOAK

Kirioak dar-dar.  
Odola bor-bor.  
Asarreak dirakit,  
ez dakit noren kontra,  
ba-dakit zeren aurka.

Zuzenbagekeria,  
diabru zatarra,  
ikusten ezтана,  
gaiztoa dana,  
erria  
ondatu nairik,  
azerikeriz,  
dabil  
gizartean.

Gizona,  
itzartu zaitez.

Ludían garbi dabiltz  
burruka gorrian,  
lengo nagusitza,  
agíndukeria,  
gaurko egarria,  
gizonen gizartutea  
zuzentasunez  
eta  
bardiñago  
gizon eskubídez  
jokatzea.

## LURREKO

Dirua ta indarra  
lurreko jauntxoentzat  
jainko zarrak dira.

Gizona baiño  
maiteago dabe  
metai otza...

Laguna baiño  
adizkideago  
aundikeria,  
anaia baiño  
kutunago  
urrea  
eta  
zidarra;  
gizon ianderra baiño  
biotzekoago  
ordu baltzetan  
galduten dan  
gizonaren lorea  
eta  
irabazten dan  
ondamendia,  
mozkorkeria,  
nardakeria.

## LARREZ

Larrez jantzi dira  
giza-mendi  
    eta  
alorrak,  
adimenak,  
    eta  
otakin ito  
biotzak.  
Gogo txarra,  
ulertu eziña,  
egiaron aurka dabil  
askoren barrena.

Zuzena,  
lotsa aundikoa dala diño,  
beartsua  
maite ezin dabenak.

Ordena  
bear dala,  
sarri,  
dirausku,  
erri be. argiña  
gosez ikusirik,  
errukirik  
ez dabenak...  
jaun aberatsak.

Erriak gogortuta,  
amodiorik ez,  
or ez dago Kristorik.

A maitasuna da  
Kurutza...  
Bearra...  
Egia  
Au da Kristoren  
irudia .

## KANPAIAK

Kanpaiak... Otsak,..  
Beargiña. Duintasuna.  
Aundikeria.  
Arrokeria.  
Eza...  
Txirotasuna.

Lugiñak baserrian bizi dira.  
Ixiik, etxe aldean.  
Soloan bearrean...  
Ume txikiak  
jolasean inguruan.  
Bakea dagola dirudi  
basetxeko eskaratzean.

Aíta ba-dator  
solotik etxera.  
Beiak janari eske,  
aiderdi guztietatik  
bearra oska.

Txaiak guritzen doaz,  
umeak asten,  
adimenak argitzen  
ikastolara bidean.

Soloan  
landara barria  
jaio da  
geroaren  
itxaropen.

## LUGIÑAK

Lugiñak atxurra darabil  
bedar txarren  
inpernurako.  
Artoak gorantz  
bizi barriaren  
itxaropen.

Bei esnetsua,  
bigai gaztea,  
dotorea,  
ukulluan dago  
etzunda.

Esne ugaria  
urre zuria  
dirudi  
balda nausian  
gainezka.

Aita  
pozik,  
eskaratzera.  
Emaztea  
eta  
umeak  
itxaroten.  
Txikiak  
tarteka,  
ikasten  
eta  
olgetan.  
Ama  
gozo giroa  
apariari ezarten.

Alta ba-dator  
eta guztiak  
bere pozari  
begira.

## UXA ADI, GUZURRA

Uxa adi, guzurra.

Gizona  
ondatu nai daben  
txarkeria,  
austu begi  
bere sorkera  
itzal bagekoan.

Aundikeria,  
goikeria  
guzurak dira  
gizon  
adindun  
gizon  
biotzdun  
ustelean.

Gizonak banatzen dabil  
aldra bitan,  
zaldunkeridunak goian  
beartsuak azpian.

Guzurra guzur!!

Gizadia  
bata bestea ezagutzeko,  
on egin  
eta  
aita bat  
maitatzeko  
da.

## DAROE

Lau gizonek  
gerizpera daroe  
abadea.

Zer egin dau?

Zuzentasuna,  
egia,  
gizonen eskubideak  
aitatu ditu  
aldara gainean.

Gurari garbiak  
opatu dautsoz  
erriari  
leku bedeinkatuan,  
Ebanjelioagaz  
argitu gura izan ditu  
adimen goiak,  
zuzentasunez errotu  
biotz barruak.

Barri onaren izonean  
lau gizonok  
gerizpera daroe  
abadea.

## ESTUA

Gizonaren bizitza estua...  
burruka bat da lurrean.  
Umeak burua argitzen  
asi orduko,  
kezketan bizi díra  
lagu nekaz.

Asarrez.  
sarri askotan,  
alkar joka,  
negarrez  
odolez.

Batak bestearen biotza  
mindu dau,  
gorrotoaren edena  
ezarriaz.

Umaroak  
guda dirudi,  
diabruak  
zirika dirala  
aingeruzko bizitzaren aidea  
barrabaskeriz  
ausita.

Ikastaroak eldu ziran.  
Bearra dator nekepean.  
Arpegi baltza muturka  
bearra ikusi nai ezta.

Ez-jakiñaren edoiak kendu bear  
jakituriagaz argitzeko,  
baiña gogo muker sarri,  
nekeari gogo ezin ezarri.



Aizeak darabil nora-nai.  
Egaz  
doakio  
burua.  
Amets zoragarriak!  
ez anka  
    eta  
ez buru.

Lan orduak  
mendiak dirudie  
goitik bera iruliz,  
gogo argalak zapaltzen.

Gaztetxo da gaztetxo.  
Odol ta kirio indarra,  
nastean,  
dabilkioz  
bultzaka  
jolaserako  
bídean.  
Nagi. Bearrik ez nai.

Baiña almenak landu bage  
piztia nagusi izango;  
gero, gizona errukarri...

Mutila burruka zoroan dabil.

## OTSKA

GIZADIA  
Zuzentasun otska dago.  
Ukar laidozkorik  
ez dau nai.  
Gizontasuna bear da  
ongikeriak  
itzirik.  
Zuzentz egizkoa  
ba'lego,  
errukagarririk  
ez litzake izango.

Gizadiaren zentzun bideak  
egiz,  
betí,  
eskatzen dau...  
gosea iiteko,  
negarrak kentzeko,  
gizona gizonduteko.

Baiña ,Tizona ez da Jaungoiko,  
ezta illezkor  
erbestean  
dirauan  
artean.

Gizona sortzetik da utsezko,  
iñoren zapaltzaille  
eta  
negar eragille.

Gizonak,  
berez,  
ditu  
ezak,  
zoritxar aldiak  
osahun galtzeak.

Berez ta iñoren erruz  
lepoa kurutzaz josirik  
dakusanean,  
egia,  
gizonari  
urten zakioz  
bidera.

# BILLABIDEA

Sarrerako zer bait ... .r. ... ..	5
	11
	12
Gizonaren ... .. .r.....	13
	14
Gaztedi ... .. .	15
	16
Azkatasuna ... ..	17
	18
Zoragarria! ... .. .	19
Bakarrak ... .. .r..	20
Ementxe ... .. .r. r..	21
Gogapeak ... .. .r. r..	22
Eriotza! ... ..	23
Ezin egin ... ..	24
Norkeria ... ..	25
	26
	27
	28
Gaiztakeria ... ..	29
	30
	31
	32
	33
	34
Gogoa ... ..	35
Nortasuna!	36
Itun ... ..	39
	40
Griña ... ..	41
	42
	43
	44
	45
Zuzentasunik ... ..	46
Bildurrez ... ..	47
Maitasuna ... ..	48
	49
	50
Itxaropena ... ..	51
	52
	53

Gizona	54
Au ... ..	55
Burruka ... .. r.r rr. ... ..	56
Gizontasunez ... ..	57
	58
	59
	60
Bikain ... ..	61
	62
Gogai ... ' ..	65
Burrukan ... ..	66
	67
Saitzea ... ..	68
Gaba ... ..	69
Illargia ... ..	70
Goiko ... ..	71
Doa ... ..	72
	73
Bigarren ... ..	74
Dago ... ..	75
Miiñak ... .. r	76
Esamesa ... ..	77
	78
	79
	80
Babesa ... ..	81
Zergaitik ... ..	82
Batez bere ... ..	83
	84
	85
Okotzeraiño ... ..	86
Nago ... ..	87
Laiño ... ..	88
Zer? ... ..	91
Nai ... ..	92
Ekin ... .rr	93
Egizu ... ..	94
Dabiltzaz ... ..	95
	96
	97
	98
Iñoren ... ..	99
Zer dira ... .r. ... ..	100
	101